

Sagarra eta Sagardoa Euskal Herrian

Sagarra eta sagardoa noiztikakoak ditugu Euskal Herrian? Aspal-dikoak noski. Baina gauza zihurrik ez dakigu. Historia idatziaren agiririk zaharrenetan galtzen dira lehendabiziko berriak. Agirietatik harat, lehenagokorik usteen ametsetan galtzen zaigu.

Zientzia aurrera doa, eta arkeologia bidez bada lehen gizonen azter-nategien estratoetan landaren haziak bilatzeko era. Ekainen egin diren azterketan, adibidez, urritzaren haziak eta beste zenbait landararenak aurkitu eta zehatz ikusteko bidea izan dute, garai haietako frutuak eta klima ezagutzeko. Holako zerbait posible izango litzake Erdi Aroan zehar historia aurreko garaietara heltzeko. Baina holakorik ez dugun artean beste bide seguruago batzuk aprobetxatu beharko ditugu. Eta gaur gaurkoz agiri idatziak besterik ez dugu.

Hala ere, esan dugunez, gure historia aurrean agiri idatzirik gabe galtzen zaizkigun gauzen artekoa dugu sagar eta sagardoa. Martin de Angulozar idazlearen ustez (1) arabeengandik hartua izan leike, baina gogoan izan behar dugu erromatarrak ere ezagutzen zutela, eta hau hola delarik leikeana da berengandik ikasia izatea. Autore batzuen iritziz, eta hauen artean E. Labayru bere Bizkaiko historian (2), XIV. mendean Euskal Herriatik Normandia-ra eraman zituzten sagarrondoak eta, inguru haietan hedatu ondorean, handik zabaldu omen zen Bre-tainia-ra ere. Dena dela, Andrea Navajero italiarrak gure herrian ikusi zituen gauzen arteko dugu sagardoa eta 1524an bere ibilerak kontatzen dituen liburuan jasotzen du hemengo edaririk ezagunena bezala.

Bestalde, Euskal Herriko deiturarik zaharrenen artean aurkitzen ditugu «sagar» eta «sagasti» sustraiak. Hamabosgarren mendea baino lehenagoko deiturarik urri dugu, baina hala ere, ordurako anitz hedatua aurkitzen dugu gure geografia guzian. Hara hemen deitura batzuk: Sagastizabal Azpeitin, Sagasti Seguran, Sagastigutxia Beasainen eta El-

(1) M. de Angulozar, *En el Pirineo vasco*. Buenos Aires, 1944. 87/90 orrialdeetan *La sagardoa* izeneko kapitulua.

(2) E. J. de Labayru, *Historia general del Señorío de Vizcaya*. Lehen argitalpena 1895 eta bigarrena 1967. I tomoaren 495/499 orrialdeak.

getan, Sagastiberridi Itsasondon, guziak XIV. mendekoak; Sagarmínaga Zeanurin eta Arteagan, Sagastiberria Ormaiztegin, Sagarzirietan eta Sagasti Elgoibarren, XV. mendekoak.

Donazio zaharretan sagastiak agertzen zaizkigu. Elizaren ondasunen arteko ziren sagastiak bere aberastasun bezala hartzen ziren. Adibidez, Bizkaiko Elorrioko San Agustín-goa San Millán de la Cogolla-ko Monastegira bere ondasunekin eman zenean, 1053garren urtean, latinez idatziko agirian zion: «Et dedimus hereditates, terras et mançanares» (3), eta Gipuzkoako Astigarribia (Motriku) elizagatik, 1128an —Garibay-k dakarrenez— «notase tener esta Iglesia pastos y montes y mançanales, y puertos para pescar» (4).

XV. menderako sagardoak zuen balioa argi ta garbi dago Bizkaiko foru zaharrea. Foru zahar hauek lehenagoko ohitura zaharren araura idatzi eta onhartu ziren 1452an. Eta honen XLIXgarren kapituluan dakarrenez, asmo gaiztoz sagardoak upeletatik hustutzen dituenak zigortzat heriotza izango zutela. Bestalde, sagastiak jartzeko arauak ematen dira foru bereko CL. kapituluan.

Gipuzkoako foruen XXI. tituluan ere, sagardoa behar dezala gordezko, antzerako erabagiak agertzen dira.

E. Urroz Errok *Compendio historial de la villa de Tolosa*-n dionez, herriko ordenantzetan erabaki gogorak arkitzen dira sagardoari behar baino ur gehiago botatzen dioten sagardoginentzat. Hala jasotzen du Martín de Anguiozar-ek bere lanean. Gainera, egile honek dionez, S. Agirre Miramón, Muzkiz dorreko kondea, Euskal Herrian sagardogintzari buruz egin den lanik handienaren egile omen da. Lan hauek ikusterik ez dut izan.

Bilbo hiriko ordenantza zaharretan ere sagardo salketarako erregelak agertzen omen ziren eta geroago, 1534 eta 1539ko lege berritzean lehenago haietan oinharritu omen ziren.

Gai hontaz zerbaít idatzi duten gehienak aipatu dute Fr. Gonzalo de Arredondo-k 1500ean Fernán González kondearen historian jarri zuen bertso hura, 931. urtean Hacinas-ko guduan parte hartu zuen Bizkaiko jaunari buruz esan zuena:

*Conde Don Lope, el Vizcaíno,
rico de manzanas
pobre de pan y vino.*

(3) L. Michelena, *Textos arcaicos vascos*. Madrid, 1964. 31 orrialdean jasotzen du.

(4) E. Garibay, *Compendio Historial*. Barcelona, 1628. Tomo 2, cap. XXIII, 54 orrialdean.

Baina, politena, zera da, Hacinas-ko gudurik ez dela izan historian, poetaren irudimenean baizik. Dena dela, gure herriaren sagardo aberas-tasuna eta ogi eta ardo eskasia adierazten ditu XV. mendearen bu-kaeran autoreak, baina inondik ere ez X.ean.

E. Garibay-k bere gaztaroan jaso zuen Andre Milia Lastukoren ere-sia, Miliaren aizpak bere heriotza bide jarriak. Aipatu dugun *Compen-dio Historial*-en jasotzen du eta Mitxelenak ere estudiantua *Textos ar-caicos vascos* izeneko liburu horretan. Kanta bera XV. mendearen lehen partekoa da. Sagar errea aipatzen duen partea soilik hartuko dugu:

Zer ete da andra erdiaren zauria?

Sagar errea, eta ardao gorria.

Ala baña, kontrarioa da Milia:

Azpian lur otza gañean arria.

Hemen, sagar errea adiarazten digu andre erdiaren (erdituaren) alimentutzat. Gutienez sagarraren estimazioa erakusten digu Erdi Aro-ko bertso honek.

Era berean, Domenjon de Andia tolosarrak, ahaide nagusien borro-ken kontra Gipuzkoako Hermandadeen eta Gaztelako erregeren alde bikain jokatu zuena eta honetatik hain ospe handia irabazi zuenez, 1489an, bertso hau jarri zioten:

Sagar eder gezatea,

gerrian ere ezpatea

Domenjon de Andia

Gipuzkoako erregia.

Askoz geroagoak dira Miraballesko adar kontuarenak. Sagarrak di-tuen vitaminen berri bazekitela adiarazten digute, Andre Milia-ren er-ditze zaurian sagar erreak zuen alimentua bezalatsu, gordin helduak hezueri gaitzarentzat. 1619an Tolosako herrian paskin batzuk agertu ziren, beretako bi euskaraz idatziak, bertso traketsez. Miraballesko jaunak, ez fama onik eta gainera hezueria (= gota), omen zuen, eta hoietako bertso batean sendatzeko kontseilua eman zioten:

Rezeta eske oi abil galdua,

gotak ondo ezтик galua;

edukak geldirik porrua

eta jan egik sagar eldua.

Bertso hoiek ere Mitxelenak jasotzen ditu aipatu dugun liburuan. Oraintsuago, joan zen mendearen azken partean, Pepe Artolak eta bestek bertso ederrik egin dute sagardoari buruz.

Gure folkloreko sagar-dantza bera ere oso aspaldikoa da.

Gai honi buruz, S. Agirre Miramón, Muzkiz dorreko kondearenaz aparte; Gipuzkoako Diputazioak 1918an argitaratu zuen pomologiazko albun bat; F. Mokoroak ere egin zuen sagardoaren estudio eder bat (5); B. Arrabal Alvarez-ek zabalkundezko liburu batean eman zituen bere denborako sagastien berriak (6); J. M. Busca Isusik gure janarieri buruzko lan batean agertzen ditu sagarraren dohainak (7) Beraz, ez da lehenago ere ikutu gabeko gaia.

Argi agertzen da sagastien berriak gure historia idatziaren hasieran bertan lausoturik galtzen zaizkigula, eta lehenagokorik zerbait jakin nahi baldin badugu beste bide batzuetaz baliatu behar garela. Esate baterako, P. Areso sedimentologoa lehen aldiz ari zaigu gure harpeen azternategietan lore-hautsak eta haziak biltzen eta analisatzen, eta hemendik lortu genezake gure herriko sagastien aintzinasuna ezagutzea.

Juan SAN MARTIN



(5) F. Mocoroa, «La sidra» (*Munibe*, V, 1953, 145/156 orr.).

(6) B. Arrabal Alvarez, *Guipúzcoa. Lecturas*. Tolosa, 1930. 75 orr.

(7) J. M. Busca Isusi, *Alimentos y guisos en la cocina vasca*. Donostia, 1958. 145 orrialdea.